# Antxiñako fotografixia



## Orain dala 60 urteko musika-bandia

Gerra osteko bandan familixa batzuen partehartzeia oso nabarmena izan zan. Hori garbi samar ikusi geinke argazki honetan: aitta-seme eta anae ugari agiri dira orain dala 60 bat urteko musika-banda oñatiarrian. **Ibarrondotarrak** dira nagusi: aitta Felix, Antonino eta Elias semiak, eta Iñazio billobia; **Kortabarriatarrak** hiru anae agerketan xaku: Juanito, Joxe Mari eta Felix; **Zabartetarrak** beste hiru: Bixente, Anjel eta Antonio; **Igartuatarrak** bi anae: Bixente eta Migel; **Astigarratarrak** aitta-semiak dittugu: Rodrigo eta Jexus; **Gorostiditarrak** letxe: Patxi eta Joxe Mari. Eta aurretik eta geruago be izan ziran bandakide hemen agerketan diranen beste senide batzuk be. Hori bai, gizakumiak danak. Neskak askoz beranduago sartu ziran: 1980 hamarkadan, hainbat urteren etenaldixaren ondoren, Oñatiko bandia barriz egitturatu zanian. Honeik dittuzue orduko musikeruak goittik behera eta ezekerretik eskumara:

Goixeneko illaran: **Joxe Mari Uribarri**; **Elias Ibarrondo**; **Bixente Zabarte**; eta **Bittor Olalde**.

Bigarren illaran: **Pedro Iraola**; **Jexus Guridi**; **Joxe Umerez**; **Juanito Maiztegi**; **Xabier Zelaia**; **Juan Soriano**; eta **Jexus Igartua**.

Hirugarren illaran: **Joxe Aranguren**; **Felix Losada**; beheratxuago, **Antonio Biain [Gomez]**; **Bixente Igartua**; **Felix Kortabarria**; **Bixente Etxezarreta**; **Juanito Biain**; eta **Antonio Zabarte**.

Laugarren illaran: **Felix Ibarrondo**; **Joxe Mari Kortabarria**; **Rodrigo Astigarraga**; **Migel Igartua**; **Jexus Astigarraga**; **Teofilo Etxegoien**; **Antonino Ibarrondo**, zuzendarixa; **Anjel Zabarte**; honen aurrian, **Jose Luis Ruiz de Arbulo**; **Juanito Kortabarria**; **Patxi Gorostidi**, **Alejandro Irizar**; **Juanito Biain**, eta **Tomas Uribarri**, danborrarekin.

Behian makurtuta: **Joxe Mari Gorostidi**; eta **Iñazio Ibarrondo**, gaur egungo zuzendarixa.

**J. E.**

Fotografixia Bittor Olaldek itzi dosku eta argibidiak Antonio Zabarterenak dira. Milla esker bixoiri!